AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

679

88/2014 EBAZPENA, urtarrilaren 30ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, M.ª Lourdes Vivanco Gomez andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko San Eloy Ospitaleko zuzendari mediko kargutik kentzeko dena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 14ko 1182/2007 Ebazpenaren bitartez (abenduaren 18ko EHAA, 242. zk.), M.ª Lourdes Vivanco Gomez andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko San Eloy Ospitaleko zuzendari mediko izendatu zen.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Nagusi honek hauxe,

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– M.ª Lourdes Vivanco Gomez andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko San Eloy Ospitaleko zuzendari mediko kargutik kentzea, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen hau 2014ko urtarrilaren 30etik aurrera jarriko da indarrean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, San Eloy Ospitaleari, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleari eta Giza Baliabideetako Zuzendariordetzari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urtarrilaren 30a.

Osakidetzako zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.